

TERMINOLOGIA-LANAREN PLANGINTZA

Sarrera

Euskararen Aholku Batzordeak *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia* (EBPN) egin zuen, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeak onartu eta Eusko Legebiltzarrak 1999ko abenduaren 10ean sendetsi. Plan horrek VI. atalean finkatzen ditu euskarak datozen hamar urteetan izango dituen erronkak, hiru mailatan bereizita agertzen dira: helburu nagusia, helburu estrategikoak eta helburu zehatzak eta proposamen-egitasmoak. Helburu zehatzen artean, VI.3.3.a atalean "*Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea*" azaltzen da; besteak beste, honako hau agintzen du Planak horri dagokionez: "Hiztegi Batua amaitu eta argitaratu. **Terminologia-lanaren plangintza egin datozen urteotarako**".

Horren ildotik, Planak agindutakoa gauzatzeko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak beharrezkotzat jo zuen datozen urteetan egingo den terminologia-lana antolatu, koordinatu eta kudeatzeko proposamena egitea.

Planak agindutakoari begira orain arte bideratutako ekimenak:

- 2001, Terminologia Mintegia

Quebeceko Gobernu Office Québécois de la Langue française-rekin (OQLF) batera Terminologia Mintegia egin zen Miñao Parke Teknologikoan (Araban) 2001eko otsailaren 27tik martxoaren bata bitartean. Kataluniako eta Galiziako partaideak ere izan ziren bertan gehi Euskal Herriko aditu-talde mugatua. Helburua OQLFko esperientzia, lan-metodologia eta normalizazio-irizpideak gertutik ezagutzea izan zen, batetik, eta, bestetik, aipatutako erakundearekin lankidetzaz-lerroak zabaltzea.

- 2001, EUSKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoa sortzea

EUSKALTERM UZEIk sortu zuen 1987an, eta 2001etik hona Eusko Jaurlaritzarena da. Banku Publikoa Eusko Jaurlaritzak bideratu eta sustatu nahi duen terminologiaren produkzio, kudeaketa eta hedapenaren muina izango da. Bestalde, bankuaren bidez terminologia berezituaren erabileran bateratasuna lortzea eta eremu berezitueta adituek terminologia berbera erabiltzea espero da, lanbide-komunikazioan bikoiztasunak eta anbiguitasunak saihesteko.

Terminologia Banku Publikoak www.euskadi.net/euskalterm helbidean doan kontsulta daiteke.

Metodologia eta irizpide jakin batzuen arabera etengabe eguneratu eta aberasten da Euskal Terminologia Banku Publikoa, Terminologia Batzordeak finkatutako irizpideen eta metodologiaren arabera hain zuzen, eta, terminologia juridiko administratiboari dagokionez, HAEE/IVAPek¹ erabakitakoaren arabera.

¹ Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala arautzen duen otsailaren 29ko 38/2000 Dekretuan bigarren artikuluan ezarrita dagoenari jarraiki, Itzulpen Zerbitzu Ofizialari dagokio euskarazko administrazio-hizkeraren nahiz lege- eta administrazio-terminologiaren batasuna, normalizazioa eta garapena bultzatzea.

- 2002, Terminologia Batzordea eratzea

Uztailaren 16ko 179/2002 Dekretuaren bidez —2002ko abuztuaren 7an EHAA argitaratua, 148 zk. — Eusko Jaurlearitzak Terminologia Batzordea sortu zuen Euskararen Aholku Batzordearen baitan. Batzorde-atal berezi gisa eratu zen kontuan izanda, batetik, terminologia normalizatzeko lanen izaera eta berezitasuna, eta, bestetik, terminologia-lanetan erakunde publikoek zein pribatuak dihardutela.

- 2003, Argitalpenak

- ✓ *Terminologia-lanaren metodologiako eskuliburua*

Terminologia-lana egiteko kontuan hartu beharreko jardute-urratsak azaltzen ditu. Liburuaren helburua da eremu edo azpiero jakinako terminologiaren azterketa sistematikoan aplikatu beharreko metodologia azaltzea.

- ✓ *Terminologia Hiztegia*

Terminologiagintzaren kontzeptuak eta izendapenak, hau da, terminoak definitzen ditu; gaztelaniako, frantseseko eta ingeleseko baliokideak ematen ditu.

Terminologia Batzordea

Batzordearen osaera

Lehendakaria:	Hizkuntza Politikarako sailburuordea
Lehendakariordea:	HAEEko zuzendaria
Idazkaria:	Euskararen Aholku Batzorde Osoko idazkaria

Erakunde eta organismo hauek proposatuta izendatuko diren kideak:

- EAEko Administrazioako ordezkariak:
 - HPSko ordezkaria
 - HAEEko ordezkaria
 - HUISeko Euskara Zerbitzuko ordezkaria
- EAEko Administrazioaz kanpoko ordezkariak:
 - Euskaltzaindiko ordezkaria
 - UZEIko ordezkaria
 - EHUko Euskara Institutuko ordezkaria

Gehienez ere 6 bokal, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak izendatuta terminologian eta euskararen aditu direnen artean.

Terminologia Batzordearen egitekoak:

- Terminologia-alorrean dauden lehentasunak finkatzea.
- Lan-proposamenak egitea eta urteko jarduera-planean jasotzea.
- Terminologia-lanerako irizpideak finkatzea.
- Termino bat baino gehiago dagoenean termino lehenetsia proposatzea.

Landutako terminologia-lanei onespina ematea.
Finkatutako terminologia zabaltzeko bideak proposatzea eta terminologia zabaltzea.
Onetsitako terminologiaren erabilera gomendatzea.
Batzordearen ekintzen urteko oroitza egitea eta Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde-atal Iraunkorrari aurkeztea urteko oroitza sartzeko.
Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoak terminologia arloan eska diezazkion oinarritzko azterketak egitea.

Terminologia Batzordearen egitekoak.

Batzordeak ez du zuzenean terminologia-lanik egiten, normalizazio-lana baizik; EUSKALTERMen bidez nahiz beste modu baten bidez zabalduko den terminologia normalizatuko du. Hona Terminologia Batzordearen egitekoak:

- Terminologia-alarrean dauden lehentasunak finkatzea.

Landu beharreko eremuak, dauden hutsuneak eta premiak detektatu beharko ditu (erabiltzaileekin harremanetan jarri beharko da); horretarako hainbat bide erabiliko du erabiltzaileekin harremanetan jartzeko: galdetegiak, azterketa zehatzak eta abar. Horretaz gain, euskaraz egiten diren terminologia-lanen koordinazio-gune ere bada Batzordea.

- Lan-proposamenak egitea eta urteko jardueraren planean jasotzea.

Ikus 2003-2005 jarduketa-plana.

- Terminologia-lanerako irizpideak finkatzea.

Batzordeak irizpide linguistikoak (Hiztegi Batua oinarri hartuta), terminologikoak eta soziolinguistikoak/pragmalinguistikoak finkatu behar ditu, ondoren sistematikoki aplikatzeko (ikus *Terminologia-lanerako irizpideak* izeneko dokumentua).

Batzordeak maileguen eta kalkoen gaineko politikaren printzipio orokorrak ere definitu ditu, betiere Euskaltzaindiaren gidaritzapean (ikus *Kalkoak eta maileguak terminologia-lanean* izeneko dokumentua).

Bertsioak aldatu ahala eguneratzen dira dokumentuok.

- Termino bat baino gehiago dagoenean termino lehenetsia proposatzea.

Dauden kasuetatik hasi eta, irizpide eta arrazoi argietan oinarrituta terminoak lehenetsiko ditu Batzordeak.

Erabaki gabeko arazoak normalizazio-txostenetan jaso beharko dira, hobeto aztertzeko eta arazoak ematen dituen terminoaren inguruko ahalik eta informazio gehien biltzeko eta aldeko eta kontrako argudioak ondo islatzeko.

▪ Landutako terminologia-lanei onespina ematea.

Terminologia Batzordearen onespina da terminologia-lanaren kalitatea bermatzen duena; batetik, behar bezalako metodologia eta finkatutako irizpideak ondo aplikatu direla erakutsiko du, eta, bestetik, kontsentsuaren ziurtapenaren adierazle da. Terminologia Batzordeak onetsitako lanek, EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoaren bidez nahiz beste formatu baten bidez argitaratzen direnek alegia, bereizgarri bat eramango dute hori adieraziz.

Batzordeak ponderazio-markak definitu eta finkatu ditu.

▪ Finkatutako terminologia zabalteko bideak proposatzea eta terminologia zabalteza.

Onetsitako terminoen hedapen azkarra eta egokia ezinbestekoa da erabiltzaileek terminologia hori erabiltzea eta onartzea nahi bada. Erabiltzaileek erabiltzeko, kalitateaz gain, oso inportantea da behar duten informazioa:

- Azkar aurkitzea.
- Kontsulta egiteko modua eta informazioa aurkezteko modua errazak eta eraginkorrak izatea.
- Informazio terminologikoa hizkuntza argian idatzita aurkitzea.
- Erabiltzaileekiko interakzioa estua eta bizia ahalbidetzea; izan ere, erabiltzaileek ez badute termino bat onartzen alferreko ahalegina da erakunde ofizial batetik termino hori sustatzea.

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa izango da Batzordeak onetsitako terminologiaren hedapenaren funtsa. Bankua jarduera terminologikoaren abiapuntua eta helmuga izan behar da.

Dena den, Batzordeak bestelako zabalkunde-bideak ere proposa ditzake.

▪ Onetsitako terminologiaren erabilera gomendatzea.

Orain arte euskaraz egin den terminologia-lana deskriptiboa izan da eta ez arauemaile edo preskriptiboa². Aurrerantzean ere, horrelakoa izango da. Orain badugu terminologia-alorrean erabakiak hartzeko ahalmena duen entitatea, Terminologia Batzordea, eta bere helburua izango da onetsitako terminologiak eremuetako erabiltzaile estrategikoengana iritsaraztea eta erabiltzeko gomendio formala helaraztea. Gero, jakina, erabiltzaileen erreakzioa ezagutzea oso garrantzitsua izango da lanean aurrera egiteko. Hortaz, terminoen erabilerearen jarraipena eta ebaluazioa egin beharko da eta, horrela, jakin zein diren berehala ezartzen diren terminoak, erabiltzaileek barregarri deritzatenak, etab. Izan ere, alferrekoa da termino bat gomendatzea erabiltzaileek onartzen ez badute.

▪ Batzordearen ekintzen urteko oroitza egitea eta Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde-atal. Iraunkorrari aurkeztea urteko oroitza sartzeko.

² Quebecen atzera egiten ari dira bide horretan eta salbuespen-kasuetan bakarrik erabiltzen dute; oraingo bidea: *normaliser moins et recommander davantage, tout en affirmant le caractère officiel mais plus incitatif de la recommandation*. Office Québécois de la Langue Française 2001

- Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoak terminologia arloan eska diezazkion oinarritzko azterketak egitea.

ONDORIOAK ETA ERRONKAK

Hauek dira euskarak terminologiari dagokionez dituen erronkak:

1. Kalitatezko terminologia produzitzea: Terminologia Batzordeak normalizazio-irizpideak aplikatu eta, horren ondoren, aztertutako terminologia onetsi egiten du; ondorioz, terminologia kotsentsuduna da.
2. Onetsitako terminologia azkar, garaiz eta modu egokian hedatzea: EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoaren bidez. Bankuko edukiak etengabe berritu behar dira benetako beharrei ahalik eta azkarren erantzuteko.
3. Terminologia ezartzea entitate ofizial baten (Terminologia Batzordearen) gomendioaren bidez. Horren helburua da erabilera gidatzea bateratasuna lortzeko eta, horretarako, eremuko adituengana iritsi behar da baina baita beste erabiltzaile askorengana ere: erakundeak, kazetariak, idazleak, irakasleak, ikasleak, argitaletxeak eta abarregana.

Azkenik, terminoen erabileraren jarraipena eta ebaluazioa egin behar da. Egindako lanen kopurua eta dauden beharrak, batetik, eta, bestetik, gomendatutako terminoen ezarpen-maila aztertu behar dira. Horretarako, bideak proposatu beharko dira (galdetegiak, azterlanak, kontsulta-motak, kontsulten jatorria ezagutzeko softwareak, etab.).

Vitoria-Gasteiz, 2003ko apirilaren 1a